Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte

Hizkuntz Normalizazio Atala
Sección de Normalización Lingüística

SAILAREN TXOSTEN JURIDIKOA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLEKO FORU DIPUTATUAREN FORU AGINDU BATEN PROIEKTUARI BURUZKOA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA 2021. URTEKO BIGARREN DEIALDIKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

INFORME JURÍDICO DEPARTAMENTAL SOBRE EL PROYECTO DE ORDEN FORAL DE LA DIPUTADA FORAL DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE QUE APRUEBA LAS BASES DE LA CONVOCATORIA PARA LA ACREDITACIÓN DE LOS PERFILES LINGÜÍSTICOS EN SU SEGUNDA CONVOCATORIA DE 2021

Txosten hau Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 16.1 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente informe se emite al amparo de lo dispuesto en el artículo 16.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Bertan ezarritakoa betez, honako hau ematen da:

En su cumplimiento, quien suscribe tiene el honor de emitir el siguiente

TXOSTENA

INFORME

Foru-aginduaren proiektu hau salbuetsita dago aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egitetik, 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26. artikuluaren lehenengo ataleko c) letran ezarritakoaren babesean. Izan ere, bertan ezartzen da izapide bi horiek ez direla egin beharko, besteak beste, funtzio publikoan sartzeko eta lanpostuak betetzeko hautaproben oinarriak eta deialdiak onartzen dituzten xedapen orokorren kasuan eta, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo izendapen politikoaren ingurukoa onartzen duten xedapenen kasuan, baita enplegu publikoa eta giza baliabideak antolatzeko planak onartzen dituztenen kasuan ere.

El presente proyecto de orden foral se encuentra exento en su tramitación de los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública, al amparo de lo dispuesto en la letra c) del apartado primero del artículo 26 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, que permite prescindir de ambos trámites, entre otros supuestos, tratándose de disposiciones de carácter general que aprueben las bases y convocatorias de procesos selectivos de acceso a la función pública, la cobertura de puestos de trabajo y en general todo lo relativo al personal, funcionario o laboral o de designación política, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como a planes de ordenación de empleo público y recursos humanos.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2021eko urriaren 8ko 2380/2021 Foru Aginduaren bidez, foru-arau hori lantzeko

Mediante Orden Foral 2380/2021, de 8 de octubre de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte se ha acordado la incoación del

Elektronikoki sinatutako dokumentua. YCN4-2PS7-7TWC-CY5H Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) YCN4-2PS7-7TWC-CY5H en www.ebizkaia.eus.

prozedura hastea erabaki da, 87/2021 Foru Dekretuaren 12.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Dekretu horren 16.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez eta bertan ezarritakoa betez, honako hau adierazten da:

a) Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak (EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen da dekretu horren bidez) euskal administrazio publiko guztiei ematen die hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben deialdiak egiteko ahalmena.

b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean eta hura garatzen duen 86/1997 Dekretuan xedatzen denarekin bat, EAEko administrazio publikoko lanpostu guztiek hizkuntza-eskakizun bat izango dute esleituta, eta kasuan kasuko hizkuntza-eskakizunaren edukia, derrigortasun-data eta egiaztatzea zehazten dira.

   Arau-esparru horretan kokatzen da foru-aginduaren proiektu hau; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundian nahitaezko hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuak daude, eta, horrenbestez, 2021eko ekitaldi honetan hizkuntza-eskakizun horiek egiaztatzeko prozesuaren bigarren deialdia hasi behar da. Xede horretarako egingo da proben deialdia.

c) Arau-proposamenak 2021ean hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko bigarren deialdiaren oinarriak arautzen ditu, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatu ahal izateko.

procedimiento de elaboración de la referida orden foral, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral 87/2021.

Respecto a lo dispuesto en el artículo 16.1 del mismo, y dando cumplimiento a lo que en él se establece, se hace constar:

a) Que la propuesta normativa obedece a lo dispuesto en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que faculta a cualquiera de las administraciones públicas vascas para la realización de convocatorias de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.

b) Que la Ley de la Función Pública Vasca y el Decreto 86/1997 que la desarrolla disponen que todo puesto de trabajo perteneciente a la Administración Pública Vasca tendrá asignado un perfil lingüístico, determinándose así mismo el contenido de cada perfil, su preceptividad y su acreditación.

   Que es en este marco normativo en el que se encuadra el presente Proyecto de orden foral, por cuanto dada la existencia de puestos de trabajo de la Diputación Foral de Bizkaia que tienen asignado un perfil lingüístico de carácter preceptivo, se hace necesario poner en marcha en este ejercicio 2021 la segunda convocatoria del proceso acreditación de estos, convocando las pruebas al efecto.

c) Que la propuesta normativa regula las bases de la convocatoria para la acreditación de los perfiles lingüísticos en su segunda convocatoria de 2021, con objeto de posibilitar la acreditación de los perfiles lingüísticos uno, dos, tres y cuatro dispuestos en el Decreto 86/1997, de 15 de abril.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. YCN4-2PS7-7TWC-CY5H Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) YCN4-2PS7-7TWC-CY5H en www.ebizkaia.eus.

Halaber, xedapen arauemaile orokor hau foru-agindua izango da, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkioten Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren titularrari foru-arau horren 39 i) eta 67.1 artikuluek eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak.

Así mismo, que esta disposición administrativa de carácter general adopta la forma de orden foral, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 63 de la Norma Foral 3/1987. de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y habida cuenta de las atribuciones que confieren a la titular del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte los artículos 39.i y 67.1 de dicha Norma Foral, y el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre.

d) Honako foru-aginduaren proiektu honen idazketan kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren Teknika Arauemailearen alorreko Jarraibideak onetsi dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko Erabakian xedaturikoa.

d) Que en la redacción del presente proyecto de orden foral se ha atendido a lo dispuesto en el Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, de 4 de julio de 2017, por el que se aprueban las Directrices de Técnica Normativa de la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Era berean, arauketa horrek ez du ekarriko kudeaketarako baliabide ekonomiko gehiagoren beharrik Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailean. Edozelan ere, funtzio publikoak dieten ordainketa egin beharko dio epaimahaiari, hala dagokionean. Arauketa horrek ez du ekarriko kudeaketarako baliabide material eta giza baliabide gehiagoren beharrik, deialdia kudeatzen duen Euskara Zerbitzuan egun daudenak baino. Horrez gainera, deialdiaren idazketan genero-ikuspegia jasotzen da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan

e) Que la referida regulación no implica en su gestión la necesidad de contar con recursos económicos en el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte sin perjuicio del abono de las dietas del Tribunal a que hubiera lugar por parte de Función Pública. Así mismo, no implica la necesidad de contar con nuevos recursos materiales ni humanos con relación a los ya existentes en el Servicio de Euskera, gestor de la convocatoria. Igualmente, en su redacción se ha incorporado la perspectiva de género, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. YCN4-2PS7-7TWC-CY5H Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) YCN4-2PS7-7TWC-CY5H en www.ebizkaia.eus.

ezarritakoarekin bat eginez.

Horrez gainera, arau-ekimen hau badago sartuta 2021eko Urteko Arau Planean.

Por otra parte, esta iniciativa normativa se encuentra recogida en el Plan Anual Normativo 2021.

Adierazi behar da ere ez dela beharrezkoa generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena idaztea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araren 25.4 artikuluan xedatutakoaren babesean. Halaber, ez da beharrekoa kontrol ekonomikoari buruzko txostena, foru-agindu hau ez baitago kontrol horren menpeko xedapen orokorren artean.

Se ha de señalar finalmente que no se hace preciso redactar informe de evaluación previa de impacto de género, al amparo de lo dispuesto en el artículo 25.4 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, ni tampoco informe de control económico, al no encontrarse entre las disposiciones de carácter general sometidas a dicho control.

Eta hala jakinarazten da, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Lo que informo a los efectos oportunos.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. YCN4-2PS7-7TWC-CY5H Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) YCN4-2PS7-7TWC-CY5H en www.ebizkaia.eus.

Sin./Fdo.: NESTOR ATXIKALLENDE BILBAO - 2021-10-13
EUSKARA ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE EUSKERA